



**2022KO URRIAREN 13KO  
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko urriaren hamairuan, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ezohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Eneritz Miranda Muxika, Felix Urkola Iriarte, Beni Goñi Padura, Iñaki Estensoro Sarasola, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Josu Sarriegi Zumarraga, Maialen Amundarain Irizar eta Ion Garmendia Iturbe.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren eguneko gai zerrendako gaiak jorratzeari ekin zaio.

**I.- KALE GARBIKETA ZERBITZUAREN ESLEIPENA.-**

Udaleko Osoko Bilkurak, 2022ko maiatzaren 26an hartutako akordio bidez, Lazkaoko udalerrian kale garbiketa zerbitzua prozedura irekiz eta lehiaketa bidez esleitzeko Bereziazko Klausula Administratiboen eta Preskripzio Teknikoen pleguak eta kontratazio espedientea onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Lizitazio deialdiaren iragarkia kontratatzailearen profilean 2022ko ekainaren 2an jarri zen eta 2022ko ekainaren 7ko 202s/S 108-3051 zbk.dun Europar Batasunaren Egunkari Ofizialaren gehigarrian argitaratu zen.

Eskaintzak aurkezteko epean proposamen bakarra aurkeztu zen:

1.- TRAECO MEDIOAMBIENTAL, S.L.

Aurkeztutako proposamena onartua izan zen.

Balio-iritzi baten arabera baloratu beharreko dokumentazioa jasotzen duen 2. artxibo elektronikoa 2022ko uztailaren 13an, eguerdiko 12etan ireki zen.

2. artxibo elektronikoak jasotzen duen dokumentazioaren azterketa egin ondoren honako puntuak eman zaizkio proposamenari:

	TRAECO MEDIOAMBIENTAL, S.L.
Zerbitzuaren plan orokorra - <i>Plan general del servicio</i> (25)	19,00
Makineria mantentzeko plana eta deskribapena - <i>Mantenimiento de maquinaria y su descripción</i> (5)	03,00
Langileak - <i>Personal</i> (6)	06,00

Kontrol eta kalitate-sistemak - <i>Sistemas de control y calidad</i> (4)	03,50
PUNTUAK - PUNTOS (40)	31'50

2022ko uztailaren 27an, eguerdiko 12etan, proposamen ekonomikoa duen 3. artxibo elektronikoa jendaurreko irekiera egin zen. 3. artxibo elektronikoa ireki aurretik 2. artxibo elektronikoaren balorazioaren berri eman zen.

Enpresak aurkeztutako proposamen ekonomikoa honako hau izan da:

ENPRESA <i>EMPRESA</i>	Zenbatekoa <i>Importe</i>	PUNTUAK <i>PUNTOS</i> (60)
TRAECO MEDIOAMBIENTAL, S.L.	2.610.000,00 €	60,00

Eta ondorioz guztizko puntuazioa honako hau da:

EMPRESA <i>EMPRESA</i>	<i>Archivo electrónico nº 2.</i> Artxibo elektronikoa (40 puntos)	<i>Archivo electrónico nº 3.</i> Artxibo elektronikoa (60 puntos)	GUZTIRA <i>TOTAL</i>
TRAECO MEDIOAMBIENTAL, S.L.	31,50	60,00	91,50

Ondorioz, aurkeztutako enpresa bakarra TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L. izanik, kaudimen baldintzak betetzen dituela eta lizitzaileen erregistroan inskribatuta dagoela baieztatu ondoren, esleipena egin ahal izateko fidantza eratu zezala eskatu zitzaion.

TRAECO MEDIOAMBIENTAL, S.L.k, lehen sailkatu gisa, esleipena egiteko baldintza pleguan finkatzen den dokumentazioa eta behin betiko fidantza jarrita du.

Honen aurrean, kontratazio mahaiak, TRAECO MEDIOAMBIENTAL, S.L. enpresaren aldeko esleipen proposamena egin du.

Joxemai Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) ezezko botoa emango dutela esan du. Bost urterako kontratua ez zaie egokia iruditzen, luzeegia dela dio. Honez gain, beraien ustez zerbitzu hau ez litzateke kontratatu behar. Udalak berak eman beharko lukeen zerbitzua dela eta modu horretan merkeagoa izango litzatekeela esan du.

Alkateak dio epea 5 urtekoa izanda, zerbitzuaren prezioa jaisten dela. Makineria berria eskatzen zaiola garbiketa zerbitzua emango duen enpresari eta zenbat eta epe motzagoa izan, kostua altuagoa izango litzatekeela udalarentzat.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botoz (EAJ-PNV) eta aurkako 5 botoz (EH Bildu), honako akordioak hartu ditu:

LEHENA.- Lazkaoko udalerrian kale garbiketa zerbitzuaren esleipena TRAECO MEDIOAMBIENTAL, S.L. enpresaren alde egitea. Esleipenaren prezioa, kontratuak iraungo duen 5 urterako, BI MILIOI SEIREHUN ETA HAMAR MILA euro (2.610.000,00 €) gehi BEZari dagokion BERREHUN ETA HIRUROGEITA BAT MILA euro (261.000,00 €) da.



BIGARRENA.- Esleipenaren akordioa, proposamena aurkeztu duen enpresari jakinaraztea eta kontratatzailearen profilean argitaraztea.

## II.- KIROL ZERBITZUEN KONTRATUAREN 1. LUZAPENA

Lazkaoko Udaleko kirol teknikariak, Joxemiel Barandiaran kiroldegiko kirol zerbitzuak emateko udalak Athlon Sintagma S.L. enpresarekin sinatua duen kontratuaren lehen luzapena proposatu du.

Udal honek 2020ko urriaren 30ean izenpetu zuen Athlon Sintagma S.L. enpresarekin Lazkaoko Joxemiel Barandiaran kiroldegiko kirol zerbitzuen kontratua, lehiaketa ireki bidez ateratako lizitazioa berari esleitu zitzaionez.

Kontratu hau bi urterako izenpetu zen eta urte beteko 2 luzapen egiteko aukera dago. Bi urteko epea 2022ko urriaren 30ean beteko da.

Lazkaoko Udaleko kirol teknikariak 2022ko irailaren 14ko data daraman idatzia aurkeztu du udal honetan, bere aldetik urte beteko lehen luzapena egiteko proposamena eginez.

Hau guztia honela, Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bertaraturako bere partaide guztien aldeko botuekin, Athlon Sintagma S.L.rekin izenpetutako kirol zerbitzuen kontratua urte betez luzatzea erabaki du.

## III.- KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO 1., 2. ETA 3. AZPIFASEAK BURUTZEKO OBREN KONTRATUAREN ALDAKETA ESPEDIENTEAREN HASIERA.-

Kiroldegia handitzeko 5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko obren zuzendaritzak kontratua aldatzeko beharra adierazi dio kontratazio organoari.

Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 Faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko lanen esleipena 2022ko martxoaren 31ko Osoko Bilkuran erabaki zen eta lan hau-ek Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L.ri esleitu zitzaion lau milioi hogeita hamabost mila berrehun eta hirurogeita hamairu euro eta hirurogeita hiru zentimo (4.035.273,63 €) gehi BEZari dagokion zortziehun eta berrogeita zazpi mila lauhun eta zazpi euro eta berrogeita sei zentimo (847.407,46 €)ko prezioan.

Kontratua 2022ko maiatzaren 3an formalizatu zen, eta zuinketa egiaztatzeko akta 2022ko ekainaren 6an egin zen, kontratista ados zegoelarik.

2022ko apirilaren 4ko Tokiko Gobernu Batzordean obra-zuzendaritza zerbitzua Jovino Martinez Sierrari esleitu zitzaion.

Egungo kiroldegia igerileku-ontzi berriaren harmailekin lotzeko aurretiazko jarduketan eta eraispenetan (obra egungo igerilekuaren estalkiaren egituraren gainean egiten da), hormigoi armatuzko habe peraltatu bat dagoela egiaztatu da lotura hori egiten den egitura-baoan. Proiektua idazteko unean, ez zegoen habe peraltatu horren berririk, eta, gainera, eremu itxi batean dago, igerilekuaren ontziaren gainetik sarbiderik gabe.

Habe peraltatu horrek aipatutako lotura eragozten du, nahiz eta ez den jarraitua hurrengo egitura-baotik aurrera.

  

LAZKAOKO  
UDALA

Behatutako zirkunstantzien eta ezaugarrien errealitatea ikusita, obra-zuzendaritzak txosten bat egikaritu du. Bertan, beharrezkoak diren jarduketa berriak proposatu ditu eta indusketa-obretan ezusteko kausa teknikoak eta Proiektu Teknikoa egiteko unean kontuan hartu ezin zirenak eta obran zehar hauteman direnak oinarritzat hartuta, beharrezkotzat jo du behar diren aldaketak jasoko dituen proiektu bat egitea, proiektua bera modu egoki batean egikaritu dadin.

Aldatutako proiektuaren kontrata bidezko aurrekontua, guztira (BEZik gabe), 366.694,50 eurokoa da.

Aldaketa horien proposamenean egin beharreko jarduketa berriek ez dute obra-epaia luzatuko.

Aipatutako inguruabarren ondorioz, obra-kontratuaren aldaketa beharrezkoa jotzen da.

Kontratua aldatzeko beharra kontratua lizitalu zen unean aurreikusi ezin zitezkeen gerora sortutako inguruabarrek eragindakoa da, eta kontratua aldatu ahal izateko bete behar diren baldintza hauek betetzen direla esan dezakegu:

- 1.- Administrazio arduratsu batek aurreikusi ezin izan dituen inguruabarretatik dator aldatutako beharra.
- 2.- Aldaketak kontratuaren izaera orokorra ez du aldatzen.
- 3.- Kontratua aldatzeak kontratuaren zenbatekoa aldatzen badu ere, ez du hasierako prezioaren ehuneko 50a gainditzen, BEZik gabe.

Horregatik guztiagatik, baimena eskatzen da Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 Faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko obraren aldatutako proiektua idazteko eta izapidetzeko.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du obra burutzea erabaki zenean, esan zuela ez zela horretarako momentu aproposa. Inbertsio haundiegia zela eta itxaron egin beharko litzatekeela Plan Orokorra oraindik egin gabe zegoelako. Momentu honetan ere berdin pentsatzen duela esan du.

Hau guztia honela, gaia aztertu ondoren eta Hirigintza Etxebizitza eta Zerbitzuak batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 7 botoz (EAJ-PNV), aurkako botoz gabe eta 5 abstentzioz (EH Bildu), Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 Faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko lanen kontratuaren aldaketa espedienteari hasiera ematea onartu du.

#### IV.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 5 ZK. KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.



Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du. Proposatzen diren kreditu aldaketak Urbaundiko bidea konpontzeko, kiroldegiko argiteria LEDera pasatzeko eta kiroldegiko kontrakantxako pareta luzatzeko partidak jartzea eta gizarte zerbitzuetako etxeko laguntza zerbitzuko partidak jartzea datzate.

Hau guztia honela, eta gaiaz eztabaidatu ondoren, gaia bozketan jarri da, eta udalak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako akordio hauek hartu ditu:

**Lehenik.**- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 5 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

#### KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	35.000,00 €
VI	Inbertsio errealak	218.000,00 €
<b>GEHIKUNTZAK GUZTIRA</b>		<b>253.000,00 €</b>

#### FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	253.000,00 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>253.000,00 €</b>

**Bigarren.**- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

#### V. ORDENANTZA FISKALAK.-

2023 ekitaldiko Ordenantza Fiskaletan, zerga eta tasei ez igoerarik aplikatzea proposatu du Ogasun Batzordeak.

Bestalde, honako aldaketak proposatu ditu:

1- Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zergen hobariak

"Eguzki plakak instalatzea: %95eko hobaria" ezartzen duen lekuan ondorengo eran ezartzea:

"Eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemen instalazioa: %95eko hobaria"

2- Kultur Ikastaroen Tasak

Bi tasa berri izendatzen dira:

- Dantzaterapia: 31,00 euro hilean
- Udako kultur ikastaroak: 9,00 euro saioko

3- Filmaketa edo antzeko jarduerak

- "Filmaketa edo jarduerak eragindako kale mozketak edo herri jabariaren okupazioa: 320,00 euro" ezartzen duen lekuan, ondorengo eran ezartzea:

"Filmaketa edo jarduerak eragindako kale mozketak edo herri jabariaren okupazioa: 320,00 euro/eguneko"

- "Filmaketa edo jarduerak eragindako kale mozketak edo herri jabariaren okupazioa, filmaketa euskaraz baldin bada: 160,00 euro" ezartzen duen lekuan, ondorengo eran ezartzea:

"Filmaketa edo jarduerak eragindako kale mozketak edo herri jabariaren okupazioa, filmaketa euskaraz baldin bada: 160,00 euro/eguneko"

- "Hiri altzariak estali, kendu edo mugitzeagatik: 150,00 euro" ezartzen duen lekuan, ondorengo eran ezartzea:

"Hiri altzariak estali, kendu edo mugitzeagatik: 150,00 euro/eguneko"

Udal zerga eta tasen gainean udalaren dirulaguntzak eta etxez etxeko laguntza zerbitzuaren tasak Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin (LGS) eguneratuko dira, egituraren aldaketarik izan gabe.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio bi proposamen helarazi zizkiola Ogasun Batzordeburuari. Bata landa-eremuko ustiategiek egindako obren gain zergarik eta tasarik ez kobratzea eta bestea kiroldetako tasa ere, ordaintzen laguntzen diren zerga eta tasen artean sartzea.

Miranda zinegotziak (EAJ) erantzun dio hiru Ogasun Batzorde ospatu direla Osoko Bilkuraren aurretik eta proposamen horiek batzorde hauetatik kanpo helarazi zizkiola. Hau dela eta, ez dutela egoki ikusi proposamen hauek helarazteko modua eta horregatik ez dituztela aintzat hartu.



Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) erantzun dio gaur dela erabaki horiek hartzeko eguna eta bazegoela astia bere proposamenak kontuan hartzeko. Ez daude ados horrekin baina onartu beste erremediorik ez dutela esan du.

Gaiaz eztabaidatu ondoren, eta ogasun batzordearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako akordioak hartu ditu:

1. Aurkeztu den proposamenean eta bere espedienteetan jasotzen den dokumentazioaren arabeko ordenantza fiskalen aldaketa, hasierako izaeraz onartzea.
2. Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar lan balioduneko denboraldian.
3. Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, onarpena behin betikoa bihurtzat joko da akordio espres berri baten beharrik gabe.

#### VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko zazpiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

LAZKAOKO  
UDALA